

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MARKIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Zur aprobetxamendua esleitzeko lizitazioa

Bat etorri Markizko Kontzejuko Batzarrak 2020ko abuztuaren 2an hartutako erabakiarekin, deia egiten da prozedura irekirako, onura publikoko 266-5 Izki mendian zur aprobetxamendua esleitzeko. Hona hemen xehetasunak:

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Markizko Administrazio Batzarra.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

– Non: Bernedoko Udalaren bulegoetan, 09:00etatik 15:00etara.

– Helbidea: Gaztelu plaza, 1 - 01118 Bernedo.

– Telefonoa: 945.3780.41

– Telefaxa: 945.3782.00

– Posta elektronikoa: [abernedo.secretaria@ayto.araba.eus](mailto:abernedo.secretaria@ayto.araba.eus)

– Agiriak eta informazioa lortzeko epemuga: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte (hogei egun natural iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera); azken eguna larunbata edo baliogabea bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

2. Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: salerosketa.

b) Azalpena: bakanketa zuzendu bidezko azken emaitzen arabera aprobetxamendua OPko 266-5 mendian, Izki dermioan (naturagune babestua), Quercus pirenaica eta Fagus sylvatica espezieen zuhaitzian, honekin batera doan baldintza teknikoen agiriaren arabera. 1.016,00 zuhaitz, materialetarako; eta 3.634 zuhaitz, egurretarako. Bolumena: 151 m<sup>3</sup> eta 1.533 m<sup>3</sup>, hurrenez hurren.

c) Iraupena: 8 hilabete, ematen denetik hasita.

d) Loteak: Ez.

3. Izapidetzea eta prozedura.

a) Izapidetzea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipen irizpideak: prezioa, eskaintza ekonomikorik onena.

4. Lizitazio zenbatekoa: 12 euros/m<sup>3</sup>. Hasierako zenbatespena, honen arabera: 1.685,00 m<sup>3</sup>, 20.220,00 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak: Behin betikoa eta osagarria: esleipen zenbatekoaren ehuneko 10 (BEZa aparte).

6. Kontratataren berariazko betekizunak.

a) Sailkapena: EZ.

b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala.

Baldintzen agirian dago zehaztuta.

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epearen amaiera: hogeitun egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduneko 15:00ak arte luzatuko da epea.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua:

– Non: Bernedoko udaletxean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara.

– Helbidea: Gaztelu plaza, 1 - Bernedo (01118).

c) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazita daudenak, eta baldintzen agirian jasotako eskaintza ereduak.

8. Eskaintzak irekitzea:

– Eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo 4. egun balioduneko 19:00etan. Egun hori larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da.

– Helbidea: Markizko kontzeju aretoa.

Markiz, 2020ko irailaren 15a

*Lehendakaria*

**ANA ISABEL MARQUÍNEZ MARQUÍNEZ**